

91. zk.
2000ko uztaila



Irakurlearen irudindua 48/27



Paco San Miguel. Eskultorea.



globene


LIBURUAK

Benito Ginea kalea, 2. Tel-faxa: 945-257514. Gasteiz.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Cuba... libre BACARDI gabe

hilabete honetan



12... 15. orr.
Zukua. 'Kuku' kalean.

22... 24. orr.
Paco San
Miguel
eskultorea.



29... 31. orr.
Molesta A Los
Más. MALM.

• atalak •

4. orr. zizka-mizkak - 7. orr.
hamaika kontu - 17. orr.
Kozkortuz - 33. orr. Zeuk
aukeratu! - 34. orr. Komikia

7. orr. Geu Elkartea.

10. orr. Elkartasunerako
Gazte Agenda.

11. orr. Gasteizera
Plataforma.

16. orr. Emaize.
Sexologia Elkartea.

21. orr. Euskaltasunean lagun.
Izaskun Vitoria Tejado.

26. orr. Sahara.

27. orr. Arte Txokoa.

28. orr. Gasteiz Cup.

termometroa**Zine independentea Gasteizen!!!**

Ekainaren 2tik aurrera eskaintza berri eta interesgarri batez gozatzeko parada dugu Gasteizen: **Azul zinemako zine independentea**; astetik astera, ostiraletan estreinatuz, aukera erakargarria pantaila handian...

- **Botatako zenbait film: Lalia, Blue, The War zone, Head On, Marius y Jeannette, West Beirut...**

Adi uztaileko programazioari!!!: La Ducha, Corre Lola Corre...

***IKUSLEAREN EGUNA: OSTEKUNA**

INFORMAZIO GEHIAGO: 945 22 33 42



**Happiness (E.E.B.B., 1998),
ekainaren 16an estreinatu pelikula**

Pisuen prezioak

Gasteiztar gehienek susmatzen zutena egiaztatu du EUSTATEN ikerketa batek: Araban pisu bat erosi edo alokatzea gero eta garestiago dela. 2000. urteko lehenengo hiruhilekoan batezbestez 110.000 pezeta ordaindu behar izan dute Araban pisu bat alokatu dutenek, Gipuzkoan baino 6.000 pezeta gehiago eta Bizkaian baino 21.000 gehiago. Bigarren eskuko etheen prezioa berriz 35,1 milioi pezetara iritsi da dagoeneko.

GEU Elkartearen ekimenez egina



Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.

Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.

Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz.

Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Mikel Valverde.

Kolaboratzaileak: Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 - **LG:** VI-582/92 - **ISSN:** 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

**zenbakia**

50.000tik gora


**euskaltzale bildu ziren
Laudion Araba Euskaraz-en
aurtengo edizioan**

ikusi-makusi



Alde Zaharreko II. Euskal Jaia arrakastatsua oso

araba bixotzian Mikel Valverde



N-I

izenak

CLAUDIA GONZALEZ MONTERO ‘URRUZUNO SARIA’ “BETIKO MAITASUNA” ipuinarekin



- Jaioterria:
Salamanca
(...“baina oso
egun gutxirekin
etorri nintzen
Gasteiza”...)
- Adina: 16 urte
- KOLDO
MITXELENA

INSTITUTUKO
ikaslea

Claudia Eusko Jaurlaritzak urtero -aurtengoa XV. Edizioa izan da- antolatu Urruzuno Saria-ko (prosa eta poesia) irabazleetako bat dugu. Literatur lehiaketa honek idazle gazteak bultzatzea du helburu (Harkaitz Cano, esaterako, hor hasi zen...).

Saria honako hau da:

- Europara 10 eguneko bidaia
 - Bidaia-poltsa (40.000 pta)
 - Oroigarri bat
 - Ipuinaren argitalpena
- SAGASTIBERRI SAILEAN

Zorionak!!!

motz-motzean

GASTEIZKO Frantzia kalean egiten ari diren Arte Garaikideko Euskal Museoak albiste iturri izaten darrai. Azken hilabeteen zehar jakin denez oporretatik bueltan, irailean, izendatuko dute zentroaren zuzendaria. Gainera, eraikinen planoari aldaketak egin dizkiotela ere adierazi dute Arabako Aldundiko iturriek. Jatetxea kentzea eta hitzaldi aretoa eta liburutegia zabaltzea erabaki dute.

ZARATARI buruzko udal lege berria onartu berri du Gasteizko Udalak. Ekaina arte egon dena 1990ean sartu zen indarrean eta horrekin konparatuta lege berria zorrotzagoa dela esan behar da, bai ezartzen dituen baldintzei dagokienez, baita isunei dagokielarik ere.


GALTZAGORRI taldeak Behinola izena duen argitalpenaren bigarren alea kaleratu du. Idazle, irakasle eta marrazkigileei zuzendutako aldizkaria da Behinola, euskara hutsean idatzita dago eta haur eta gazte literaturaren berri ematen du. Urtean bi ale ateratzeko asmoa agertu dute Galtzagorriko kideek.

IGNACIO Aldekoaren bi ipuin euskaraz, gazteleraz eta esperantoz biltzen dituen liburuak kaleratu da Arabako Esperanto Elkartearen ekimenez. Inazio Lopez de Arana eta Joxemari Sarasuak egin dituzte euskarazko itzulpenak eta liburuak salgai dagoeneko 500 pezetako salneurrian.



naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulgatzea eta konserbatzea helburu nagusiztat dinuen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)



Gure inguruan oso eskasak diren nenufar zurien (*Nymphaea alba*) artean deabruaren zalditxoaren amodioak.

Iñaki Zorrakin



GEU ELKARTEAren ekaineko ekitaldiak gogoan...



1- KULTUR Errotaren barnean, Bi Luma taldearen kontzertua Parral tabernan (maiatzaren bukaeran). Irudiez inguratutako musika lasaia une atsegina pasarazi zien bildutako-ei

2- BAGARE euskaltokian egindako KANTU-AFARIA. Ahotsa prest joandako hainbat lagun hurbildu zen bertara Trikioket (trikia+karaoke) kantatzera

3- MORAU kantautorearen kontzertua Gaztetxean (Kultur Errota), berezia benetan

Argazkiak: E.R.

*Uztailean eta abuztuan zehar ez da ekitaldirik izango, baina irailetik aurrera adi egon, sorpresak egongo dira eta!!!

*GEU Elkartea eta Aldizkariaren: I. POSTAL LEHIAKETA

Dagoeneko udan gaude eta duela bi urte antolatzen hasi ginen argazki lehiaketari ekin beharrean, proposamen berri batekin gatozkizue: Postal Lehiaketa!!!!

*Oporrak pasatzeko hautatu tokitik, beraz, postal bat bidalguzue... Postalik erakargarriena (irudi zein testu-esaldi aldetik) saritua izango da.



HELBIDEA: Pedro Asua 2-3.-01008-GASTEIZ (zuen izen-abizenak eta telefonoa zehaztu)
POSTALA BIDALTZEKO EPEA: IRAILAREN BUKAERA ARTE
SARIA: 5.000 pezetako taloia, hurrengo oporraildirako aurrezten hasteko...

6 HILERAKO EKIPAJEA



UKIPEN-LENTEAK 14.900 PEZETAN BAKARRIK 89,55€

Eta opari moduan eraman
GURPILDUN MALETA eder bat

MENDIAOPTIKA
MULTIOPTICAS

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ


Multiopicasen 6 hilerako Packa: hilerok aldatzen diren Multilens lenteen bi kaxa, Multifree edo Multibio Plusaren 2 pote eta lentixketako 2 kutxatila.

2000/08/31ra arteko promozioa



"AR ASKOZ ERE H AUTOBU K B

Hona hemen Arabako Foru Aldundiak Gasteiztik Arabako herrietara eta Arabako herrietatik Gasteiza joan ahal izateko abian jarritako autobus zerbitzua. Herri batean bizi zarela eta Gasteiza etorri nahi duzula...?, Gasteizen bizi zarela eta Arabako hainbat herri bisitatu nahi dituzula...? Orain baduzu aukera zerbitzu honi esker!!



ABA HURBILAGO"

US ERABILI IDAIAZTEKO

Alava  Araba

askoz.ere.hurbilago
mucho.más.cerca.

MAIZTASUNA
10 zerbitzu eguneko - 4 zentzu bakoitzean

ORDUTEGIAK
Larunbatak, igandeak eta jai-egunak

	Boveda	Gasteiz
10:30	9:00	
18:00	12:30	
	21:00 (Boveda)	

ZERBITZUA JASOKO DUTEN GUNEAK(*)

Ohiko-linea



* Ohiko-lineaz gain, tarteko herrietan ere zerbitzua ezar daiteke, bertako eskaeraren arabera

GASTEIZ
LAGRAN
BERNEDO

MAIZTASUNA
10 zerbitzu eguneko - 5 zentzu bakoitzean

ORDUTEGIAK

Astegunak (astelēhen-ostirala)			Larunbatak eta jai-egunak		
Irteera Gasteiz	Irteera Bernedo	Etorrera Gasteiz	Irteera Gasteiz	Irteera Bernedo	Etorrera Gasteiz
7:15	8:00	9:00	9:15	10:00	11:00
10:15	11:00	12:00	14:15	15:00	16:00
14:15	15:00	16:00	17:15	18:00	19:00
17:15	18:00	19:00	21:15	22:00	23:00
20:15	21:00	22:00			

ZERBITZUA JASOKO DUTEN GUNEAK(*)

Ohiko-linea

* Ohiko-lineaz gain, tarteko herrietan ere zerbitzua ezar daiteke, bertako eskaeraren arabera

900 50 12 77
Argibideetarako telefonoa

GASTEIZ
ARAIA

MAIZTASUNA
10 zerbitzu eguneko
5 zentzu bakoitzean

ORDUTEGIAK

Astegunak (astelēhen-ostirala)		Larunbatak		Igandeak eta jai-egunak	
Araia	Gasteiz	Araia	Gasteiz	Araia	Gasteiz
6:45	8:15	9:30	14:00	14:00	9:00
9:30	13:15	16:00	20:30	20:00	21:00
15:00	16:00				
17:00	18:00				
19:15	20:30				

ZERBITZUA JASOKO DUTEN GUNEAK(*)

Ohiko-linea

* Ohiko-lineaz gain, tarteko herrietan ere zerbitzua ezar daiteke, bertako eskaeraren arabera

900 21 02 48
Argibideetarako telefonoa

Arabako
Foru Aldundia



Diputación
Foral de Alava

www.alava.net

ELKARTASUNerako GAZTE AGENDA 2000/01

Lehendabiziko gazte agenda 1995eko urtarrean argitaratu genuen "GU TA ZU, GAZTE 95" izenburupean. Testuak eskuz eginda, maketazioa gauez prestatua eta izugarritzko ilusioarekin kalera-
tu egin genuen hemengo gazte euskal-
dun talde baten ardurapean.

Harrez geroztik euskara eta izpiritu gaz-
tea gure aurkezpen txartelak izan dira,
"elkartasun" hitza ahaztu gabe. Gu eta Zu,
Zu eta Gu, beti gazte beti solidario, alegia.

Zergatik? Gure ustez gazteon artean
euskal kulturak (abestiak, atsotitzak,
herrietako jaiak, datak eta gertakariak, bes-
teak beste) badu zer esanik gaur egun. Eta
honekin batera elkartasun deiak aukera
ematen digu beste herri eta kultura ezber-
dinetara ireki gaitezen.

Elkartasuna gutako askok kristau ikus-
pegi orokorretik ulertzen dugu beste elkar-
tasun ikuspegi ezberdinak onartuz eta bat
eginez. Aniztasuna eta tolerantzia amanko-
muneko lan baten oinarritzko osagaiak
direla uste dugu (Korana, Txina eta Indiako
erlijioak, batik bat)

"Gu Ta Zu Bateginik" sigiluarekin kale-
ratu dugu aurtengo gazte agenda (2.000ko
uztailetik 2.001eko ekainera bitartean).
MBYA GUARTANiar herria da gure lagun
solidarioa, gastuak kenduta etekin guztiak
eurentzat izango baitira, euren laguntzaile-
ak hobeto prestatzeko.

Ba al dakizue nola diote gurekiko?,
Iparreko bizimoduarekiko zein kultur
kapitalistarekiko?:

**NA KIRINI, isiltzeko gonbitea luza-
tzen digute eurak hobeto ezagutu di-
tzagun guk geuk.**

**NAMOMBA'EGUASU, gutxienez
eurenganako begirunea gordetzeare-
kin konformatzen dira.**

**JA HECHERAMO, euren kultura
eta bizimodua miresteke gonbite
zuzena luzatzen digute.**

Agian, Argentinako Misiones herrialde-
an bizi diren 4.700 mbya guaraniar
migrante hauek pixkat hobeto ezagutera
erakarriko gaitu gazte agenda honek, euren
erlijio, hezkuntza, gatazka eta alternatiba
nolakoak diren irakurritz. Berezko erlijio,
berezko hezkuntza eta berezko kultura
badauzkate. Harro daude eta MERCOSUR
delako eraso (errepide, gaseodukto, petro-
ligintza eta urpresak) bortitzaren aurrean
ATY-k bideratuta (Batzar herrikoia), herri-
ko gizon eta emakumeak bat eginik, euren
lurretan jarraitu nahi dute euren askatasu-
naren arabera bizitzen (Ñandereko). Baina
nola egin aurre Multinazional eta Hego
Amerikako gobernuai (Argentina, Brasil,



Paraguay eta Uruguay) eraikuntzar hauek
kultura hau zapaldu ez dezaten?. Seinalea
argi dago, lehenasuna euren kulturari
ematean datza.

**30 gizaki solidario dira MBYA
GUARANIar Herriarekin batera ino-
ren menpean ez egoteko eguneroko
burrukan, euren ASKATASUNagatik.
Duela gutxi Kolonoak eta
Multinazionalak eta oraingoan MER-
COSUR dira lurralde lapurtu eta euren
interesetarako esplotatu nahiko dituz-
tenak herri miresgarri hau baztertzen
dutelarik LURRA, ESKOLA BIKUL-
TURALA, OSASUNA eta GARAPENA
nahi dituzte, baina beti euren
ÑANDEREKOREn arabera, erabakiak
eurek hartuz.**

Gu Ta Zu Bateginik hemengo euskal
gazte talde bat da, elkartasuna bizitzen
ahalegintzen dena, bai D ereduko ikasgu-
netan (Ikasbidea Ikastola, Koldo
Mitxelena Institutua, Olabide ikastola) bai
euskal kristau elkarreketako gazte taldeetan
(Zutarriko Andra Mari, Gure Aita).
Guretzat esparru guztiak ezinbestekoak
dira elkartasuna praktikan jartzeko.

Eskerrik asko!, zure elkartasunerako
gazte agenda eskuratzegatik eta parte
hartu nahi izanez gero edota gazte agenda
bera hobetzeko iritzirik bazenu, badakizu
non aurkitu.

GU TA ZU BATEGINIK
Tfnoa. 945.12.05.71



- ANDONI URRESTARAZU

"UMANDI" (1902-1993) euskaltzale
arabarrak amaitu gabe utzi zuen hiz-
tegia osatu eta kaleratu du Uzei argi-
taletxeak. Asmo hiztegi bezala
(Asmo-iztegia) definitu behar dena
kaleratzeak lan eskerga eskatu du:
Umandik eskuz idatzita utzi zituen
385.000 fitxa sailkatu eta informati-
zatu ditu Uzeik. Argitaletxeko ardu-
radunek aitortu dutenez azkenean
hiztegia atera bada Miren Terese
Urrestarazu, Umandiren arrebaren lan
nekaezinari esker izan da. 10 urte
eman zituen Umandik lan honetan,
orain arte euskal hiztegiak bete
gabe zuen hutsuneetako bat betetzera
etorri dena, besteak beste, hiztegi hau
baita euskal hitzak esanahiaren arabe-
rako hurrenkeran jartzen dituen lehe-
na.

Asmo-iztegia

Andoni Urrestarazu "Umandi"

2 liburuki, 3.226 orr.

Salneurria: 9.000 pta.

Egitura. 1. liburukia:

Hitzaurrea- Eskertza- Atarikoak-
Azerbidezko atala- Esakerak

2. liburukia: Abdezko iztegia

'GEZURRAK, GEZU- RRAK, GEZURRAK' liburuaren aurkezpena

Arriaga Campus Librudendan

(Unibertsitate Pabilioian)

Euskal Herriko Unibertsitatearen
eskutik

Hamar gezur liburu baten aurkezpene-
rako errezitaldia eskaini zuten Iban
Zalduak -liburuaren egilea- eta beste
hamar idazle eta lagunek "Gezurrak,
gezurrak, gezurrak" lana jendartera
ezagutaraziz. Ekitaldiari ardoaz eman
zitzaien amaiera.



"Gizartea da protagonista"

Preso gasteiztarren aldeko taldearen lanak urte erdia du

Gasteizko alderdi politiko, sindikatu eta gizarte mugimenduez osatu Gasteizera Plataformaren lanak urte erdia bete du. Preso gasteiztarren eskubideen alde lan egitea da orokorrean taldearen helburua eta, zehazkiago esateko, horien egoeraren berri gizartearen arlo guztietara zabaltzea eta legeak dioena bete dadila lortzea: presoek hurbilketa, eta gaixorik daudenak eta zigorraren 3/4ak bete dituztenak libre uztea.

Helburua gauzatzeko gizarteak protagonista izan behar duela azpimarratu du Javi Aguillo, Gasteizera taldeko kideak: "Gizarteak egin behar du indarra, bakoitzak bere arloan eta dituen baliabideekin lan egin behar du...". Ahalik eta alderdi politiko eta sindikatu gehien biltzeko ahaleginetan dauden arren, gizarte mugimenduek egin dezaketen aportazioa baloratzen du gehienbat Gasteizera-k.

1999ko azken egunetan sortu zen taldea, presoek aldeko aldarrikapenak eta mobilizazioak ugaritu ziren momentu batean, beraz. Hala ere, Gasteizera-koen ustez ekarpen baliotsua izan zen taldearen sorrera: "Gure taldea besteak (Batera, AAB, Senideak...) baino zabalagoa eta antzagoa da, gertaera zehatzei eta



politikari erreparatu gabe lan egiteko konpromisoa hartu du". Bestetik, lane-rako esparrua Gasteiz izanda bertako ezaugarrietara hobekien moldatzen den estrategia bultzatzen saiatuko dira: "batzuetan Euskal Herri mailan antolatu ekimenek harrera epela izan dutelako hemen".

Urte hasieran 30 bat talde, alderdi eta sindikaturen sinadurak bildu zituzten ekimenaren bultzatzaileek; egun 50 bat talderen atxikipena dute eta beste askoren erantzunaren zain daude: "ABBren aukeraketa prozesua amaitzean EAJk gurekin bilduko dela agindu digu, CC.OO. eta UGTk proposamena aztertuta eta erantzuna emango digutela hitz eman digute, eta etxe erregional, aisialdi talde eta abarri gure aldarrikapenak aurkeztuko dizkiegu beren laguntza lortu asmoz".

Mobilizazioak izan ziren hasiera batean presoek egoera eta arazoak ezagutarazteko aukeraturiko tresna. Ekainean Udalaren 'Txanda Popularra' erabili du Gasteizera-k Alfonso Alonso alkatearen asmoak eta jarrera ezagutu nahian, eta presoek eskubideak errespetatuak izan daitezen bildutako 7.636 (Gasteizko presoak dauden kartzeletatik etxera dauden kilometroen kopurua) sinadura aurkezteko.

SINATZAILEAK:

- Askapena • Euskaraz Bizi
- Gasteizkoak • Haika
- IKA • AEK
- Comunidades Cristianas Populares
- Egizan • Uztailak 26 Elkarteak
- Errotako Presoen Asanblada
- Asamblea de Mujeres
- Eguzki
- Amnistiaren Aldeko Batzordeak
- Elkarri • Hiru
- Iniciativa Hostelera • Kakitzat
- Gazte Asanblada • EHE
- Sumendi • Senideak
- Abetxukoko Auzo Elkarteak
- AFAP
- Asociación de Amigos/as de la RASD
- Salhaketa • Kalamudia
- Zaramazulo
- Komite Internazionalistak
- Zazpigarren Alaba Auzo Elkarteak
- Bagare • Gurasoak
- Mugarik Gabe
- Coordinadora de Curas
- Gasteiz Txiki Auzo Elkarteak
- Hirugarren Mundua eta Pakea
- 0,7 Plataforma...
- IU-EB • EPK
- HB • Zutik
- EA • LAB
- ELA • ESK
- STEE-EILAS
- SINTRARABA

Erantzunaren zain:

- EAJ • CC.OO. • UGT...



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

'KUKU'. JOSE MANUEL GIMON. 13 URTE KARTZELAN

"Kartzelak berak ez dit aztarnarik utziko, baina barruan ezagutu ditudan lagunak bai"

Maiatzaren 27an itzuli zen Gasteizera Jose Manuel Gimon, Kuku. Atzean utzi ditu Carabanchel, Herrera de la Mancha, Ciudad Real, Segovia eta Langraitzeko espetxeetan emandako hamairu urteak. Duela hiru urte zigorraren 3/4ak beteak izan arren eta legearen ikuspegitik aske utzi behar bazuten ere, azken momentura arte barruan izango zutela argi izan du gasteiztarrek. 22 urte zituela espetxeratu zuten Gimon eta kartzelan hazi eta heldu egin dela aitortu du Kukuk. Hala ere, barruan igaro hamairu urteak ez omen dira eguneroko bizitzari aurre egiteko zama handiegia izango Gimontentzat.



- Zu izan zinen 1999ko irailean Mayor Orejak iragarritako "hurbilketa" benetan hurbilduriko gutxien arteko bat. Nola bizi izan zenuten finean espetxetik espetxerako mugimendu hutsa izan zena kartzela barruan?

Ni ekarri ninduten, bai, baina kalera irteteko zortzi hilabete baino ez zitzaizkidalako falta. Adarjotze itzela izan zen mugimendu hura.

Kalean jendeak ezberdin bizi ditu horrelakoak. Presoek oso ondo dakitte zer dagoen... PPK orduan bizi genuen prozesua "su-etena presoen trukean" parametroetan neurtzen zuen, baina hori ez dator errealitatearekin bat; errealitateak benetako konponbidea eskatzen du.

- Presoen sakabanaketak senideengan duen eragina sarritan izaten dugu hizpide, baina zer eragin du zuengan, presoengan?

Bi motatako dispersioa dagoela esan behar da lehendabizi: Kartzela artekoa eta kartzela barrukoa. Kartzela barruko dispersioak preso politikoak modulu desberdinetan banatuta egotea dakar; Valdemoro edo Aranjuez moduko kartzela handietan bi lagun baino ez dituzte izaten modulu bakoitzeko. Kartzelan egotea latzago egiten du horrek.

Kartzela arteko dispersioari dagokionez familiari sortzen dizkion diru

 **OKO!**
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Ka La MUA
TABERNA
Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5
Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia
PAPERTEGI TEKNIKA

galerak eta istripuen arriskuan pentsatzea da gogorrena. Bisita izan aurretik onik helduko ote diren urduritzen zaitu eta joaten direnean bueltako bidaia zelan egingo duten pentsatzen ematen dituzu orduak.

- **Zuengan trasladoek omen dute sakabanaketa bera baino eragin handiagoa.**

Bai horixe. Adibide moduan esango dizut zenbait epaiketetan lekuko gisa adierazpenak egin behar izan ditudala azken asteotan eta leku batetik bestera ibiltzeagatik egin behar nituen unibertitate azterketak galdu ditudala. Bestetik, familiakoak alde batetik bestera eduki ditut, non zauden azaltzen ez dietelako, bisitara joaten direnean "hemen ez dago" baino ez diete esaten eta.

KARTZELA BARRUKO IKASLEA

- **Ikasten zaudela aipatu duzu. Kartzela barruan ikasketak jarraitzeko eragozpenik jarri dizute?**

Guk urrian egiten dugu matrikula, denek bezala, baina apirila-maiatza arte ez zaizkigu liburuak iristen, beraz partzialak egiteko aukera galtzen dugu halaberrez eta ekainekoak egiteko ere gaizki ibiltzen gara. Apunteak bidaltzen laguntzen dutenengatik ez balitz inortxok ezingo luke ikasi. Hala ere, azkenengo traslado

**Duela hiru urte
zigorraren 3/4ak
beteak izan arren
eta legearen ikus-
pegitik aske utzi
behar bazuten
ere, azken
momentura arte
barruan izango
zutela argi izan
du gasteiztarrak**



hauengatik ez balitz Geografia eta Historia karrera amaituta izango nuke.

- **Euskal Herrian azken bi urteetan emandako prozesuaren ondorioz aldatu al da euskal preso politikoen egoera? Su-eten garaian aldaketarik somatu al zenuten?**

Arlo guztietan gainera. Barne Ministerioaren irizpideei jarraituz asko estutzen gaituzte kartzeleroek, baina su-eten garaian lasaiago egon ziren eta, ondorioz, gu ere bai. Trasladoetan jasaten genituen jipoiak baretu ziren garai horretan eta ezarritako zigorraren 3/4ak beteak zituztenen egoera ere aldatu zen. Eskaera eginez gero zigorraren 3/4ak beteak zituztenak kalera irtengo zirela esan zigun epaileak; su-etena amaitzean prozesu hori eten egin da eta 3. gradua eskatu behar da berriro, hau da, irteteko txantaia egiten digute, damutzeko eskatuz.

- **Eta presoen kolektiboak nola bizi izan ditu mugimendu horiek guztiak?**

Jakinmin handiz, kolektiboak ez duelako sekulan horrelako egoera bat bizi. Errezeloak izan arren, oso itxaropentsu dago jendea; itxaropena eta mesfidantzaren artean...



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

ZIRT EDO ZART

• Liburu bat?

Zaila da bat aukeratzea. Duela gutxi Gioconda Belli-ren "La mujer habitada" irakurri dut eta asko gustatu zait.

• Kanta bat.

Bat esatea zaila da.

• Gasteizko leku bat?

Judimendi auzoa. Oso gustura ibiltzen naiz bertan.

• Ardo gorria ala beltza?

Ardo gutxi edaten dut nik, baina... bazkaltzean beltza.

• Momentuko kezkarik handiena?

Oporrak.

• Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gauza bera askotan errepikatzea ez zait batere gustatzen..., ume txikia bainituzan sentiarazten nau.

• Omenaldiaren momenturik hunkigarriena?

Bi: beste preso gasteiztarren amek oparia eman zidatenean -jaso nuen oparirik preziatuena-, eta ahotsa irtetzen ez zitzaidala ikustean neska bat laguntzera etorri zitzaidanean. Oso momentu gozoa izan zen.

• Eguna alaitzen dizu...

Ohetik altxatu eta eguzkia ikustean kalera irten ahal izateak.

- Eta alderdi abertzaleen arteko elkarlana nola baloratzen duzu?

Bakoitza zer den bada-kigu eta zaila da mesfidantza guztiz baztertzea; EAJrekiko mesfidantza batez ere, dispertsioari baiezkota eman ziotela ezin baita ahaztu.

Dena den, elkarlan hori, biltze hori logikoa da. Ezker abertzaleak EAJ, EA eta nahi duten guztiakin elkarlana bultzatzea ezinbestekoa da, bat etortze zabalena bilatu behar delako. Nola eraikiko dugu Euskal Herria bestela?

- Aurrerapausoa iruditzen zaizu beraz?

Guztiak zintzoki eta alderdikierietan ibili gabe jokatzeko badute, bai noski.

- Euskal presoen kolektiboak espetxe barruan daudenek eraikuntza nazionalan eta bake prozesuan parte hartu behar dutela gogoratu du behin eta berriro. Nola baina?

Oso zaila da eta muga handiak ditugu, baina esku hartu nahi dugu eta ditugun aukerak aprobetxatu behar dira eta ekarpenak landu, lanak bidali...

- Presoen partehartzea posible egiteko kolektiboa bildu egin behar da?

Derrigor, bestela oso zaila da. Langraitzen adibidez 22 lagun geunden, talde ederra hitz egin, eztabaidatu

"Bat etortze zabalena bilatu behar da. Nola eraikiko dugu Euskal Herria bestela?"

daten beste bi urteak arrazoirik gabe kendu zizkidaten, neurean tinko jarraitu nuelako.

- Kanean egon behar zenuela jakinda, azken hiru urteak gogorrenak izan al dira?

Ez bereziki, nik banekien ez zidatela inolako erraztasunik emango. Segovian izan nintzenean irtenbide bat bilatzeko tentatzen eduki nituen, baina ezetz esan nienez...

Dena den, niretzat erdiko urteak izan ziren gogorrenak, 4. eta 8. urtearen arteko epea. Sartzen zarenean ohitu bitartean ez zara gehiegi ohar-tzen; jabetzean datoz momentu la-tzenak. Egoera onartu eta denbora ahalik eta hobekien aprobetxatzen saiatzea ezinbestekoa da.

- Irtenbide pertsonalak hartzeko presioak sistematikoak al dira?

Nahiko arruntak. Ahul zauden momentuak aprobetxatzen dituzte

AZKEN HIRU URTEAK

- Nola izan da zure prozesua? Duela hiru urte bete zenituen ezarritako zigorraren 3/4ak, ez?

Kontuak zuzen eginda 95ean bete nituen.

Deskontatu behar zizki-

"Irteteko txantaia egi-ten digute, damutzeko eskatuz"

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43



etxean jaso nahi dut



Izena		
Abizenak		
Helbidea		Tfnoa:
P.K.	Herria	Herrialdea
Bankua/Kutxa		Sukurtsala
Kontu zk. (20 digituak)		

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu: GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

horrelako eskaintzak egiteko: familian arazoren bat dagoenean, gaixo zaudenean...

- Zelako harremana izan duzu preso sozialekin?

Nik harreman ona izan dut errespertatu nauten guztiekin. Gainera garai luzeetan ni izan naiz Segoviako preso politiko bakarra. Ez ditut preso sozialak gutxiesten, alderantziz, posible izan dudanean laguntzen ahalegindu naiz.

Izan ere, askok idazten ere ez dakitela kontuan hartu beharra dago eta idazkiak egiteko laguntza behar dute. Behin mutil batek amarentzako gutuna idazteko eskatu zidan. Horren gauza pertsonala eta beste bati eskatu behar izatea ere! Egin nion, nola ez, baina gaizki sentitu nintzen.

- Preso sozialekin alderatuta pribilegiatuak zarete abokatuen asistentziari dagokionez, adibidez.

Beraiek ez dute ezer, hori da arazoa. Askotan abokatuak bilatzen ere guk laguntzen diegu. Segovian lapurreta

txikiak egiteagatik bi mutiko sartu zituzten eta non zeuden ere ez zekiten. Nik Salhaketa-koei idatzi nien laguntza eske, mutil jatorrak zirelako, eta horri esker nahiko azkar ateraziren.

- Kartzelan pasatutako 13 urteek azterna utziko dizutela uste duzu?

Nire nortasuna izango da, baina berehala integratu naiz berriro ere bizitza normalera. Dena dela, lehen egun hauetan gehiegi mimatu naute, oso polita izan da dena, beraz, agian hemendik hiru hilabetera galdera hau egiten badidazu ez dizut gauza bera erantzungo. Halere, egoera guztietara moldatzeko erraztasuna daukat eta irten aurretik mentalizazio lan handia egin dut. Ondo jarraitzeko itxaropena daukat eta ez dut uste



kartzelak berak aztarnarik utziko didanik, barruan ezagutu ditudan lagunak bai ordea.

- Ez zaizu samin handiegia nabaritzen...

Askok barruan gorrotoa ote dudan galdetu didate. Gorrotoa nik? Inoiz ez dut ezer gorrotatu eta ez naiz orain hasiko. Garai latzak atzean uzten ez badituzu ezin daiteke aurrera egin eta nik bizitza berria hasi behar dut. Gainera, istoria honetan sartzean berarekin dakarren guztia onartu behar duzu, inor kaltetu gabe.

"INOR EZ DA KANPORATUA IZANGO TORTURA EDO TRATU TXARRAKJASOTZEKO ARRISKUA DAGOEN HERRIALDERA" (Giza Eskubideen Europako hitzarmenaren 3. Artikulua) ENTREGA, TORTURA ARRISKUA, LEGEZ KANPOKO NEURRIA
ALBERTO LOPEZ DE LACALLE GAUNA preso gasteiztarra (ezarritako 7 urteko kartzela zigorra irailean betetzen du...) Estatu Frantsezetik Espainolera expulsatua eta entregatua izango da uztailaren 6an gaueko 12:00etan. Hau dela eta, Alberto Lopez de Lacallek gose grebari ekin zion ekainaren hasieran...

SENIDEAK-en OHARRA ETA SALAKETA

ikastaro
trinkoak

bai & by
land

Florida kalea, 8 • 945 150 155

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 13 71 02 Tfnoa: 26 19 91
01006 01004

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883





Errege Atea 3, 4. bulegoa
01001 Vitoria-Gasteiz - Tel.: 945-26.58.96
e-maila: emaize@euskalnet.net

EMAIZE

Sexologia Elkartea

Zer behar dugu gazteok?

Gazte jendearen behar sexualak onartzen al ditu gure gizarteak?, guk nahi ala ez, gazteek sexu harremanak dituztela ohartzen al gara benetan?, edo baztertu egiten dugu gai hori, nahi gabeko haurdunaldien edo sexu bidez transmititutako gaixotasunen kopurua larritzeko modukoa ez den bitartean?

Horren guztiaren atzean bada arazo argi bat: gazteek nerabezaroan sexu harremanak izateko eskubidea ez da onartzen. Familiek nahiz hezkuntza eta osasun sistemek gazteek sexu harremanak izateko duten eskubidea Cedo gutxienez harremanak badituztela onartuko balute eta eskubide hori (hala nahi dutenean) askatasunez eta erantzukizunez garatzen lagunduko balute, gazteen errealitatea desberdina izango litzateke. Instituzio horiek eskubide hori ukatu egiten dute baina, bestalde, gure gizarte kontsumista honek sexualitatea saltzeko duen modua ikusita larritu egiten dira eta zer egin ez dakitela geratzen, eskaintza gero eta ausartagoa baita (aldizkari pornografikoak, Interneten edozeinek ikus ditzakeen orrialde pornografikoak, telebistako zenbait programa...).

Begien bistakoak diren gertaera batzuek (nahi gabeko haurdunaldien hazkundera edo koito ondorengo tratamenduen gehiegizko erabilera) proportzio neurrigabeak dituzte eta horren aurrean lehenengo

erantzunak entzuten hasi dira, oraindik oso gutxi badira ere.

Sexualitatea alderdi aberasgarria eta atsegingarria dela ulertu behar da, pertsona guztien garpenerako oso positiboa, eta ikuspegi hori sexualitatearen garapen onuragarria eta integratua sustatzen duen faktorea da, egoera arriskutsuak (abortuak, frustrazioak, sexu bidez transmititutako gaixotasunak, desengainuak...) baztertzen dituen.

Horregatik, oso garrantzitsua da sexualitateaz txiste lizunaren bidez bakarrik ez hitz egitea, horrek barrea baino ez baitu eragiten; dibertitzen gaituenaz, arduratzen gaituenaz, atsegin dugunaz edo atsegin ez dugunaz hitz egin behar dugu.

Azken batean, komunikazioak, irekiagoa eta argiagoa bada, baliozko informazioa lortzeko

jarrera positiboagoa bultzatzen du eta baliabide egokiagoak erabiltzeko aukera ematen digu; bestalde, bide horretatik askatasun eta erantzukizun handiagoz erabaki ahal izango dugu nola, noiz eta norekin izan nahi ditugun sexu harremanak eta prebentziorako zein metodo egoki eta eraginkor erabili nahi dugun.

Hezkuntzaren esparruari dago-kionez (ikastetxea, familia, aisialdia...), Sexu Hezkuntzaren bitartez arrisku egoera horiek saihesteko laguntza handia eman daiteke; baina hezkuntza programen helburu bakarra ez da arriskuen prebentzioa izan behar eta sexualitatearen ikuspegi orokorra eskainiko duten beste eduki batzuk ere landu behar dira, lehenik eta behin gazteen arteko sexualitatea onartuz.



Zuek duzue hitza.



KOZKORTUZ



KOMETA



- ✦ **Helburuak:** ✓ Apaingarri eder bat sortu.
 ✓ Logela kolorez bete. ✓ Amonaren artilea aprobetxatu.
 ✓ Eta noski ... ONDO PASATU i!!!
 ✦ **Adina:** 10-11 urte. ✦ **Zailtasuna:** Ertaina.

PAUSOAK:

- Artilearekin bi makilak lotu gurutze bat eginez.
- Artileaz makil bakoitza buelta batez inguratu eta hurrengo makilera pasa. Jarraitu horrela artilea parekaturik mantenduz (ez utzi bata bestearen gainean ipintzen).
- Kolore aldaketa egiteko, erabiltzen ari garen artilea moztu zati bat zintzilik utziz (hurrengoari lotu daiteke nahi bada). Beste artile bat hartu eta hasierako pauso berdinari jarraituko diogu.
- Nahi ditugun koloreak erabili ondoren, korapilo batez bukatu eta erabilitako kolore guztiekin kometari isats polit bat egingo diogu.



POLITA, EZTA?



PLIST-PLASTA

ASTI LIBREA EUSKARAZ!!!

TELEFONOA: 656739030



axular

LIBURU DENDAREN ESKUTIK

Udara iraku

"UNTXITXO TXURIA"

Xose Ballesteros eta Oscar Villan
KALANDRAKA-2000 (Haurrak)

Untxitxo txuria bere etxetik baratzera aza bila irten zen salda bat egin asmoz. Etxera sartzera zihoala atea itxita aurkitu zuen eta gainera jabe berri batekin, aker adar oker bat zegoen-eta. Untxitxoak akerraren beldurrez animalien laguntzaren bila ibili zen: idia, txakurra, oilarra, inurria... Nork lagunduko ote dio bere etxea bereganatzeko?



"BETIKO IPUINAK"

Resurrección Maria Azkue
HIRIA-2000 (Gazte literatura)

Liburuxka honetan ipuin sorta bitxia aurkituko dugu. Ipuin labur hauek -Alaba eta alabaordea, Erregearen zorria, Ezkonberriak, Herensugea, eta abar...- ohiko ipuinetara hurbiltzen gaituzte.



"MANOLITO LA"

Elvira Lindo
Alfaguara-2000 (Gazte literatura)

Manolito laubegi izeneko auzoan bizi den aitona, anaia txikiak, auzoko gora-beherak, gertakari bezala bizimodua eta haren barregarri eta bere ikusteko aukerak.



Lehiaketa

txiki park

Domingo Beltran kalea, 53
01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02



erketaz janzteko...

"AUBEGI"

(Gazte literatura)

Carabanchel bizi da. Bere etxea eta lagunekin berak egundoko bizi ditu. Honen aurtzaroa modu berri batean ulertu behar dugu.



"TANGER-EKO AMETSA"

Xavier Verneta

Elkarlanean-2000 (Gazte literatura)

Abentura-nobela hau hamabi pertsona Afrikatik Europara txalupa batean bizi modu hobe baten bila joaten direnean hasten da. Horietatik bakar batek jarraituko dio bidaiari, besteak Afrikara bueltatuak izango dira. Pertsonaje honek Parisera iristeko helburua du, baina bidean era guztietako oztopoak aurkituko ditu. Parisera helduko ote da?



"LA BESTIA INVISIBLE"

Thomas Brezina

SM - (9 urtetik aurrera)

Hiru neska-mutilek natur zientzietako museoaren zaindariari zerbaitek eraso egin dion berria jaso dute. Gazteak jakingurak jota misterioaren atzetik egongo dira zaindariari nork eraso dion ikertu asmoz. Ikerketazale amorratua bazara ezkutapen hau argitzeko aukera izango duzu zeuk ere.



Testua: Itziar Uriarte Fdz. de Trokoniz.

★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★ ★
Ez gehiago itxaron, egin zaitez gure klubeko bazkide ★

EKAINEKO galdera:

Zenbat urte bizi daiteke dortoka bat gehienez?

Erantzuna: Dortoka bat 300 urte bizi daiteke gehienez

Ez du inork galdera asmatu... Beraz, sarrerak beste baterako gordeko ditugu. Uztaila, abuztuaren eta irailean ez da lehiaketarik egongo; hortaz, URRIRA ARTE!! Eta jarrai dezazuela orain arte bezala parte hartzen... Uda ona pasa, eta udazkenara arte!!!

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPELEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

iturrieta

Sagardotegia



**UDARAKO PLANIK
FRESKAGARRIENA!**

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 – Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

IZASKUN Vitoria Tejado

- Izaskun Vitoria Tejado 1975eko irailaren 12an jaio zen Gasteizen. Gurasoak gasteiztarak (ama Donostian jaioa bada ere) dituen gazte hau Errota auzoan bizi da bere familiarekin, etxean zortzi neba-arreba izatetik lau izatera pasa direla. Gizarte lana karrera amaituta egun ludotekan eta jantoki batean lan egiten du.

-Euskara euskaltegian ikasi zuen Izaskunek 18 urte bete zituen arte, baina euskaltegia utzita ere euskara bere kabuz ikasten jarraitzen du. Hobbyen artean, berriz, alemana, soina eta panderoa ditu: "Ikasten ditudan gauzak azken finean nire zaletasunak ere badira". Lehen "itxia" omen zen gure lagunak orain ezinezkoa du kaletik ibiltzea norbaitekin topo egin eta hitz egiten gelditu gabe. "Jantokian, tabernan, euskaltegian eta begirale lanean hasi nintzenetik gehiago erlazionatzen naizela esaten didate".



"Tabernan, jantokian eta batez ere begirale lanean hasi nintzenetik gehiago erlazionatzen naizela esaten didate"

- Duzun biziorik handiena? Dudarik gabe, txokolatea eta Coca-Cola.
- Bertutea? Etxean galdetu dut eta esan didate bertuterik ez daukadala.
- Zer eskatzen diozu bizitzari? Gauzak ondo ateratzea, bai nireak baita ingurukoena ere.
- Zer eskatzen du herriak? Gauza asko, baina entzun behar duenak paso egiten du horietaz.
- Jeniorik ba al duzu? Bai, pasada bat, baina etxean kaleratzen dut batik bat.
- Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Gezurretan ibiltzeak.
- Geu Elkartea eta aldizkariren berririk bai? Bai, etxean jasotzen dut aldizkaria hasiera-hasieratik.
- Egunkariaren bat? Gara eta El Correo.
- Pelikula onen bat? "Tomates verdes fritos" eta "Semillas de rencor".

- Telebista programarik? Telebistan ez dago gauza handirik, beraz, ez dut telebista ikusten.
- Gustuko aktoreren bat? Carmelo Gomez eta Ingrid Rubio.
- Jaki goxoren bat? Txokolatea duen edozer.
- Zure gorputzaren atalik politena? Ez daukat bat bereziki, ez daukat...
- Txikitako oroitzapenik? Aurpegian eta hanketan hartzen nituen kolpeak.
- Oporrak non eta zertarako? Hondartzan. Berdin zait norekin, baina ezer ez egiteko.
- Liburu gomendagarriaren bat? Las cenizas de Angela.
- Idazleren bat? Liburuak argumentuaren arabera aukeratzen ditut eta idazlea zein den ez zait inporta.
- Munduan dagoen denbora guztia

izanez gero, non, zertarako? Edozein tokitara joateko, betiere bidaiatzeko.
- Gasteizen biziko ez bazina non biziko zinateke? Hiri txiki batean edo herri handi batean.
- Gasteizek duen onena? Txikia da eta parke asko ditu, inportantea oso nire kasuan, txakurra baitaukat.
- Txarrena? Etxebizitzaren prezioa.
- Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Zure inguruko jendeak baldin badaki erraza da, bestela bilatu behar duzu.
- Zer nahi zenuke jendeak esatea zu hil eta gero? Ba... (ja, ja)... lagun edo pertsona ona nintzela.
- Zein duzu momentuko kezkarik handiena? Nire hanka sendatzea (belauna txarto dauka...).
- Gustuko kolorearen bat? Urdina.
- Musika talde gogorik? ...Save Ferrys, adibidez.

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ehunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

BEIRATE ESTUDIOA



MIKEL DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

Paco San Miguel, eskultorea

"Eskultura nork bere burua ezagutzeko era bat da"

Paco San Miguel bere lanez inguratuta eta bere lanik handienan bizi da. Egileorreko bere etxea gasteiztar honen ardura eta ideien erakusgarri argiena da. Han, naturaren babesean Pacok irudikatu, landu eta sortu egiten du, orain hogeita bost urtetik hona egin duen modura. Etxea bera museo bihurtzen da, bere eskulturez, gainera, musika, dantza eta antzerkirako eszenatoki paregabe ere bilakatuz. Buztina izan zen Pacok hasierako lanetan erabili zuen lehengaia. Denborarekin, eskulturan murgilduz joan zen heinean, harria lantzen hasi zen eta gaur egun marmol zuria da gehien lantzen duen materiala. Artegileak ez ditu aldaketa asko ikusten hastapenetako lanak eta eskultura berrien artean. Garbitasun osotik mintzaira propio bat eratzerara pasa dira bere lanak, garapen horretan berezko estilo amankomuna gorde nahi izan duelarik.

Paco San Miguelentzat eskultura bere izaera garatzeko espresibiderik erosoena da eta mundu horretan bere bidea egiten lagundu dioten artegile eta eskultore askoren eraginak aitoritzen ditu. Horien artean Jorge Oteizak toki garrantzitsua dauka, "honetan ari eta hemen bizi garenon harrotasuna" baita Pacorentzat.

• Zergatik hautatu zenuen eskultura eta zerk inspiratzen zaitu?

- Nik kezka ugari ditut eta nire barruak pentsamendu horiek kanporatzeko eskatzen dit, hori egiteko beharra daukat, eta eskultura da gehien erakartzen nauen espresibidea. Buztina lantzen hasi nintzen buztin-gile batekin, baina pixkanaka nigan zerbait eraldatuz joan zen; nire neurriko bide adierazkorra aurkitzeko grina sortu zitzaidan eta eskulturan topatu nuen. Horretan hasi eta berehala dena ateratzen joan zen. Nik mundua ezagutzeko eta neure burua ere hobeto ezagutzearren egiten dut eskultura, bizitzeko era bat da. Eskulturaren bitartez nire izateari zentzua ematen diodala iruditzen zait. Eta inspiratu, denak inspiratzen nau, baina naturak batez ere. Naturan eroso sentitzen naiz, informazio asko dago eta sortzeko giro egokia da, orekatua, neutrala.

• Beraz, eskultura zure ardura eta galderei erantzuna emateko erabiltzen duzu. Horretaz gain zer adierazi nahi diozu zure lanetara hurbiltzen denari?

- Eskultura lantzean nik bilatu egiten dut, bilaketa lan bat burutzen dut. Baina bilaketa lan hau niretzat izateaz gain amankomuna ere bada. Nitaz aparte, munduan zertarako dagoen, bere egin-beharra zein ote den galdetuko duen jende asko egongo da. Era batean jende horrek nire kezkak konpartitu ditzake, nire eskulturarekin bat egin.

• Zein da zure lanetako bat sortzeko jarraitzen duzun ibilbidea?

- Prozesua ez da beti bera izaten; lanaren, ideia-aren edota materialaren arabera aldatzen da. Normalean lehendabizi buztinezko maketa moduko bat egin ohi dut, eta gero horietako batzuk marmolera pasatzen ditut. Hala ere, marmolak jarrera irekiagoa eskatzen du. Hau da, batzuetan maketa ezin daiteke guztiz mantendu; harria lantzen duan bitartean ideia eta ikuspuntu berriak sortzen zaizkit eta horiek islatu nahi izaten ditut. Baina badaude oso argi irtetzen diren lanak ere. Ezin da erabat orokortu.

NATURAREN BABESEAN

• Naturan eroso sentitzen zarela aipatu duzu lehen. Egileorreko etxea zure lana eta naturaren arteko uztartze modura uler al daiteke?

- Etxearena oso garrantzitsua da niretzat. Larogeita zazpian edo aldaketa baten beharra sentitu nuen. Ordurarte egindako modulukako lanen fasea bukatutzat eman nuen eta naturara gehiago hurbiltzeko gogo gaizatu nuen. Bizitzeko toki egokia nahi banuen nik neuk egindako etxea behar zuela oso argi ulertu nuen.

"Naturan eroso sentitzen naiz, informazio asko dago eta sortzeko giro egokia da, orekatua, neutrala"

Egileor izan zen leku berezi hori eta eskultura erraldoi bat egiteari ekin nion. Momentu horretan etxea nik neuk egiteak orduan nuen berrikuntza beharra aseko zuela uste izan nuen eta horrela izan zela iruditzen zait orain ere. Gainera, esperientzia horren bitartez naturak jarri zizkidan probak gaizditu ondoren onartu egin ninduela sentitzen dut.

• Zer-nolako lurraldea da Araba artea eta artegileentzat, ondo zainduta al zaudete?

- Araban artegile asko dagoen arren aurrera jarraitu ahal izatea oso zaila suertatzen da gehienentzat. Alor askotan dauden laguntzak arteari ez zaizkio hainbeste ematen. Badago dirulaguntza-



FITXA TEKNIKOA

• **Artegilea halabeharrez. Pacoren bi anai-arrebak, Tomas eta Silvia, musikari eta konpositoreak dira, baina artearekiko harremana atzeragotik datorkie.**

• **Autodidakta. Pacok erizaintza ikasketak egin zituen eta arteaz dakien guztia bere kasa ikasitakoa da.**

• **Nazioarteko onarpena. Euskal Herriaz gain bere lanak Jugoslavia eta Italian ere ezagunak dira.**





"Araban arte-
gile asko
dagoen arren
aurrera jarraitu
ahal izatea oso
zaila suerta-
tzen da gehie-
nentzat"

rik, baina hezkuntza eta prestakuntza-
ri lotuta daudenez gero aldi baterako-
ak izaten dira. Ondorioz, laguntza
horiek bukatzen direnean eskulturatik
bizi ahal izatea ia ezinezko bihurtzen
da eta aurrera jarraitzeko bakoitzaren
gogoia eta indarra baldintza ezinbeste-
ko bilakatzen dira. Izan ere, hezkun-
tzari loturiko dirulaguntzak alde bate-
ra utzita, aukera bakarra lehiaketak ira-
baztea da. Hoberena izan behar da eta
hori artearen izaeraren aurka doa.
Beraz, egoera ez da oso pozgarria,
baina hala ere, asko gara honetan
gabiltzanok.

Musikak eta eskulturak bat egiten dutenean...

*"Lan guztiak nire seme-alabak bailiran
maite ditut. Baina beharbada Kepa
Junkerari egin niona aipa daiteke.
Arratsalde batean etxean agertu eta eskul-
tura bat egin niezaiola eskatu zidan Kepak,
aspaldiko lagunak gara-eta. Bere musika
entzunez berehala irten zen lana. Eskultura
hau marmol zurian egin nahi nahi izan
nuen irudiaren formak, eta ez harria bera,
nagusi zitezen. Pieza hau berezi egiten
dutenak bere argitasuna eta sinbolismoa
dira; oso erraza da Keparen musikatik
abiatuta esanahiez beteriko lan bat sortzea.*



Trikitixa

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika

bertan



Arriaga
Campus

Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

MIKO
izozkiak

H I R O U A K
J A T E T X E A
Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

bar • restaurante •
albéniz

Errege ateak, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

UDA IKASTAROAK

HASI EUSKARAZ!



¡EUSKARA ASÍ!

- 2 eta 5 orduko IKASTAROAK
- MAILA GUZTIAK
- BARNETEGIAK:

Bera, Etxalar, Leitza eta Lesaka.

- MATRIKULAZIO EPEA - PLAZO DE MATRICULA:

Irailerako (para setiembre): ekainak 1 - uztailak 23 (1 a 23 de julio)

Barnetegietarako (para barnetegis): ekainaren 1etik, hasi baino aste bat lehenagora arte

- INFORMAZIOA:

GASTEIZ EUSKALTEGIA

Errege-Erregina Katolikoak 15 - C

945 - 288 922 tfnoa.

PINTO EUSKALTEGIA

Pinto 74

945 - 289 780 tfnoa.

ZALDIARAN EUSKALTEGIA

Badaia 25

945 - 24 49 05 tfnoa.



ZURE BETIKO EUSKALTEGIAK !

* HABEren dirulaguntzaz antolatuak.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

herririk herri, hizkuntzaz hizkuntza

*Apirileko aleko artikulua jarraipena

Kultura eta Tradizioa Saharar Herriaren nortasun ezaugarri (II)*



Baietza esateko unean, andregaiaren gurasoek haxe esaten diote solaskideari: "Gure gibelaren zati bat jartzen dugu zure esku". Familia ados badago, egun bat erabakiko dute, osteguna edo ostirala normalean, eta andregaiaren familia arduratuko da ospakizunen prestaketaz. Jaima handi bat edo etxe erosoren bat (gaur egun) prestatzen dute eta tapiz, moketa, turkesa, kuxin eta beste hainbat gauza erabiliz apaintzen dute. Gonbidatu direnei eta ez direnei tea ateratzeko 15-20 azpil prestatzen dira, eta gamelu eta arkume batzuk hiltzen dituzte ezkontza-ospakizunetara datozenei emateko.

Lekua prest utzita, andregaiaren jaiman bi familiak eta Taleb edo epaileak biltzen dira, sinadura ofiziala egiteko.

Epaileek ALFATIHA deritzon Koraneko sura edo atala irakurtzen dute eta, ondoren, halako eta halakoren arteko ezkontzaren legezotasunaren berri ematen dute beste termino batzuen bidez, gurasoen lekukotasuna adieraziz eta senar-emazteen adostasunez.

Azken esaldi hauek esan orduko danbor-hotsa hasten da eta zenbait emakume ateratzen da dantzan eta oihuka, ezkontza ospatuz. Beste jaiman lehenengo gauko ospakizunei ekiten zaie eta beti izaten dira gonbidatuen artean musika-taldeak eta abeslariak. Jaima edo etxe hau ospakizuna antolatu duen familiaren etxe edo jaimatik ehun edo berrehun metrora egoten da, pertsona nagusiak ez eragozteko, ospakizun-jai hau gau osoz luzatzen baita.

Ospakizun hauek egun batetik aste betera iraun dezakete; inoiz ezkondu ez direnen kasuan hiru egunetik aste betera bitartean eta ezkondata egon direnen kasuan egun bat.

Ezkongaiak bakoitza bere etxean prestatuko dira: dutxatu, maki-latu, ezkontzeko jantzi dotorea jantzi... Senargaiak Darra jantziko du, praka, alkandora, durbante, naila eta gumia dotore batekin. Emaztegaiari lagunek eta ahizpek lagunduko diote eta ondo apainduta Kleopatra gisa agertuko da.

Lehenengo gauean ez dute senargaiaren aurrera eramango. Senargaia andregaia ikustera joan daiteke, baina harekin eta haren lagunekin tea hartu ondoren, berriro ezkontzako jaimara itzuliko da.

Baina argi: adiskide eta laguntzaileekin jaiman sartzerakoan fusil zaharren salben bidez ospatuko dute eta AZKARIT emakumeen oihuak entzungo dira. Jaimari hiru bira emango zaizkio, laugarrengoan sartzeko, eta hiru egun horietan senargaiak leku zehatz bat

izango du bertan. Sahararren artean bada ohitura bitxi bat: emaztegaiaren lagunek lehen gauean eta batzuetan denbora luzeagoz emaztegaia ezkutatu egiten dute. Senargaiari eta honen taldeari horixe egiten diete txantxetan, izan ere, ezkontza hauetan bi talde osatzen baitira: neska defendatzen dutenak eta neska non ezkutatzen duten jakiteko zelatan egoten direnak, senargaiaren aldekoak.

Musikaz, poesiaz eta dantzaldiez gozatzen dute eta neska-mutil gazteen aurpegi distira nabarmentzen da; harreman ugariaren sorgune ere izan ohi dira eta askotan aste gutxiren buruan ezkontza berriak etorriko dira. Azken egunean lagun eta senideek ezkongaiak gonbidatzen dituzte eta opariak eginez ematen diete amaiera ezkon-ospakizunei. Mendebaldeko Sahararen idiosinkrasiaren erro sakonen beste adierazgarri bat da, Mauritania aparte utzita, herrialde hau Ipar Afrikako herrietatik bereizten duen beste ezaugarri bat da.

Ondorengo poema hau Mendebaldeko Saharako ezkon-ospakizunen ingurukoa da:

**Fatima dantzan ari denean, mundua
desagertzen da. Haren oinetan
labur da bizitza, oinen erritmo
ñimiñoaz. Sutzar bat bailitzan,
argi egiten du zeruan. Haren aurrean
dar-dar egiten du basamortuak,
eta begietan badu halako argi amaigabe bat.**

**Fatima dantzan ari denean, txoriak
pausatzen zaizkio masailetan.**

**Usoak datozkio aldaketara,
gazelak belauketara.**

**Danborrek etengabeko taupan
kantatu egiten dute, amaierarik gabe.**

**Haren gerria haizearen doinura
dantzatzen den landare-zurtoina da.**

**Fatimaren besoek eguerdiko iratxoari
dei egiten diote
eta Dairan lurrak**

bor-bor egiten du bihotzak bezala.

**Fatima dantzan ari denean, guztia
erritmo eta danbor-hots, irribarre eta doinu bihurtzen da.**

Bera da mundua, bere baitan oihu egiten dute

mende guzietako ahotsek,

edonoiz emandako musuek,

beste garai batzuetako karabanek,

poesiaren iragan garaiek.

Egin dantza, Fatima. Ez kezkatu ezertaz.

Jada munduak

baditu bi izaki,

Fatima eta Basamortua,

mugimendu, maitasun eta musikak sortuak.

BAHIA MAHAMUD AWAH


Ekainean gure artean izan diren hiru erakusketa dakarzkizuegu arte-txoko honetara...

GASTEIZKO ARTE ETA LANBIDE ESKOLAREN 225.


URTEURRENA dela eta, ikasleei zuzendu Arte Plastikoen I. Sariketan sailkatutako -finalisten- artelanen erakusketa (Pintura, eskultura, zeramika...): Maite Perez- Flora Criado- Angel Bombin- Silbia Grijalba- Valentina Rodriguez- Pilar Glz. de Zarate- Bakarne Egilegor- Gabino Ruiz- Maribel Gil... Artegile berrientzako aukera!!!

Eskolarekin jarraituz, **LUIS DE AJURIA ARETOAN** ikusgai izan dira ekainaren 20tik uztailaren 2ra arte ikasturte honetan zehar **Proiektu Sortzaileen Tailerretako**

(Arte eta Lanbide Eskolaren azken etapa) ikasleen, artisten, artelan onenak, pintura, eskultura, zeramika, larrua, egurra eta abarretan... Artista berriak abian!



ARABAKO CAMPUSA-UNIBERTSITATE PABILIOIAN Mujeres 2000 Emakumeak erakusketa: Mentxu Fernandez- Beatriz Llata-Sonia Senosiain- Miriam Cameros- Itziar Rincon- Ainhoa Laffage- Alazne Berges- Olatz Intxausti- Estitxu Sanz - Leire Etxagibel (argazkian)... Orotara 24 emakumeren lanak ikusgai.





**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



Futbol mundiala bost urtez

"Txina, Brasil edota Argentinatik jokatzera norbait etorriko zenik ez zuen inork sinesten, horregatik laguntza ekonomikoa eskuratzea oso zaila izan zen Txapelketaren lehendabiziko urtean". Horrela gogoratzen du Gasteiz Cup Futbol Txapelketaren arduraduna den Iñaki Eguesek norgehiagoka honen hastapeneko garaia. Bost urte pasa dira ordutik, eta gaur egun oso desberdina da Txapelketa honek bizi duen egoera: "Hogei futbol talde etortzetik kasik ehun etortzera pasa gara; aldaketa nabaria beraz".

Gasteiz Cup-a 1996ko udan jaio zen mutil nahiz neska gasteiztarrek futbolarekin gozatzearaz gain kultura ezberdinetako haur, gazte eta lagunekin harremanak egin ditzaten helburuarekin. Estatu mailan antzeko ekintzak egiten ziren heinean Iñaki Eguesek Gasteizerako aukera polita izango zela pentsatu eta aurrera jo zuen: "Kanpoko taldeekin inoiz joka-

tu ez duten gazteentzat esperientzia ahaztezina da hau. Modu honetan gainontzeko taldeek nola jokatzeko duten ikasiko dute. Gainera, arestian esan bezala harremanak egiteko aukera ona dute hau; izan ere, aurreko urteetan beste herrialdeetako neska-mutilekin eskutitzez edota internetetik erlazio bat finkatu duten gazteak badaude".

3000 PERTSONA KOORDINATUZ

Aurtengo uztailaren 9-15 bitartean, beraz, Gasteiz Cup-aren bosgarren urteurrena izango da. Horregatik, aurtengo edizioaren barnean zenbait berezitasunekin topo egingo dute jokalariek. Eguesen esanetan, "Jendearen arteko harremanak sendotzeko denetarik prestatzen ari gara, hala nola, festak, afariak, delegatuen arteko partidukoak, hitzaldiak, bilerak, dantza klaseak ere izango dira..., eta azken egunean dantzaldi eta festa handi bat egongo da". Baina arduradunak berezitasunen artean bat azpimarratzen du, jende kopurua alegia. "Urtetik urtera Gasteiz Cup-ean parte hartzera gerturatzen diren lagunen zenbakia areagotuz doa, ez baitira soilik jokalaria etortzen baizik eta gurasoak, senideak, buruak eta

abar, eta Gasteiz munduko beste herrietan ezaguna izateko hau guztiz mesedegarria da".

Ondorioz, eta dena ondo atera dadin, arduradunak antolakuntza eta koordinakuntza lanean aspaldi ari dira. "Hasiera batean gutxi baginen

Futbolarekin gozatzearaz gain kultura ezberdinetako lagunekin harremanak izatea da helburu

ere, orain 3.000 pertsona mugitzen ditugu, non bolondresen laguntza zeharo garrantzitsua den". Partiduko Gasteizen dauden sei futbol zelai ezberdinetan izango dira, egoitza nagusia Adurtzan egongo delarik. Jantokia, berriz, Mendizorroitzeko polikiroldegian egongo da. Baina, zalantzarik gabe arazo handiena ostatu ematea da: "Gasteizen lekuak, egoitzak edota hotelak alokatzea ez da merkea, eskerrak zenbait ikastolarekin konpondu garen". Hala eta guztiz ere, Gasteiz Cup Lehiaketa oztopenetako arazo larriena ere ez da traba. **Aurrera eta zorionak!!**

"Hogei futbol talde etortzetik kasik ehun etortzera pasa gara..."



MALM taldekoek trash musika eta industrialak egiten dute. Euskal Herrian nahiko gutxi egiten den musika estiloa da, baina gero eta jarraitzaile gehiago dituen, dudarik gabe. Gasteizko talde honek duela gutxi kaleratu du bere lehen diskoa, Mil A Gritos diskoetxearekin. Gogo eta ilusio handiaz ari dira han-hemenka kontzertuak ematen eta taldea ezagutarazten. Luis, taldeko gitarrajolearekin solasean aritu gara.



- Noiz eta nola sortu zen taldea?
MALM 1997ko bukaera aldean sortu genuen eta taldeko kide gehienak H2SO4 taldetik gentozen. Aurreko talde horretan Ivan, abeslaria, Cesar, baxujolea, eta ni neu, gitarrajolea, geunden. Arazo batzuk izan genituen konpainiarekin eta H2SO4 taldea desagitea erabaki eta MALM sortu genuen. Taldera moldatzen zen bate-



riajolerik aurkitzen ez genuenez, ordenagailuz gauzak sartzen eta musika konposatzen hasi ginen.

Beranduago, 1998aren amaiera aldean Alvaro sartu zen taldera, programazioak eta sanplerrak egiteko. Iazko urtarrilean maketa grabatu, 6 kantaz osaturik, eta martxoan salmentan jarri genuen.

-Eta hortik diskoa grabatzeko jauzia nola gertatu zen?

Hainbat diskoetxeri aurkeztu genien gure maketa eta horien artean MIL A

LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK



zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



"Ez genuen hain harrera onik espero"

GRITOS izan zen diskoa atera ziguena. 1999ko irailean grabatu eta urrian kalean zegoen jada gure lehen diskoa.

- Zeintzuk izan ziren MIL A GRITOS-en sartzeko eman pausoak?

Hiru diskoetxek azaldu zuten gure maketarekiko interesa: bat Madrilgoa, beste bat Tarragonakoa -baina hauek eskainitakoa ez zitzaigun gehiegi interesatu...-, eta azkenean, Mil A Gritos. Gasteizen egoteaz gain, Mil A Gritos-ek egin eskaintza ona zen eta bertan geratu ginen.

- Zer esan nahi du MALM hitzak? "Molesta A Los Más" (gehiago sentitzen direnak izorratu); alegia, dirua

detulako besteak baino gehiago direla uste dutenak molesta itzazu. Guk uste dugu denak garela berdinak baina era berean desberdinak, eta inor ez dela bestea baino gehiago dirua izateagatik.

NAHASKETA

- Nola definituko zenuke zuen musika?

Nahasketa bat da, trash musika eta musika industrialaren nahasketa. Batzuek diote hard-core puntu bat ere badugula... Azken batean da trash estiloa metalarekin nahastua.

- Talde edo musika estiloren baten eraginik ba al du MALMek?

Bai, noski. Entzuten duzun eragina izaten du egiten duzun musika estilok. Agian Fear Factory eta Maching Head taldeen antza izan dezakegu, hauek musika industrialaren egiten dutelako. Letretan, aldiz, S.A., KOMA edota Su Ta Gar-en estilokoak izan gaitzke... Azken finean entzun ohi duzun musikatik hartzen duzu eragina.

- Zuen musika estiloa propiotzat joko zenuke ala ez?

Egia esan, egun ia ezinezkoa da ezer berririk asmatzea musikan, guztia asmatuta baitago jadanik. Gustuko ditugun estiloak nahasten ditugu, beti gauza berriak sortzen saiatuz. Nahasketen bidez estilo propioa egiten ahalegintzen gara.

- Taldea sortu zenetik kontzertu asko eman al dituzue?

Bai, nahikotxo. Guztia oso azkar joan da, hau da, maketa atera eta segituan sartu ginen diskoa grabatzera... Kalean zegoenean, diskoa aurkezte hasi eta orduan, 99an, kontzertuak emateari ekin genion. Gure lehenengo kontzertua Katanga Faktorian

Euskal Herriko eszena musikala

- Nola ikusten duzue gaur egun Euskal Herrian dagoen musika mugimendua?

Gero eta talde berri gehiago daude, eta hori oso ondo dago. Baina, adibidez, guk egiten dugun musikak zaila du egun, ze orain joera da punk-rocka edota Alemaniako heavy-metalaren egitea... Eta kontzertuak emateko orduan antolatzailerik onarpen handiagoa izango duena bilatzen dute, modan dagoena. Gure kasuan, estilo berria egiten dugunez, zailago dugu. Baina, bestaldekik, egia da talde berriei gero eta leku eta bultzada gehiago ematen ari zaizkiela eta hori ere oso ongi dago.

- Euskaraz abestuko bazenute, uste al duzue ate gehiago irekiko litzaizkizuekeela?

Guk sekula ez dugu pentsatu zein hizkuntzatan abestu behar dugun... Ivanek baino ez daki euskaraz, besteok ez dakigu, eta jotzen hasi ginenean gaztelek egin genuen, horrela atera zitzaigulako, besterik gabe. Esan nahi dut ez dugula planteatu euskaraz egin, erdaraz ala ingelesez egin nahi genuen...

- Aurrera begira, helbururen bat al du MALMek?

Hau guretzat dagoeneko ez da denborapasa, diskoetxe batean kontratu bat duzunean ez da denborapasa. Zein talderi ez litzaioke gustatuko musikaz bizitzea? Horrek ez du esan nahi guretzat zaila ez denik izan. Aitzitik, gu oso pozik gaude eta ezin gara kexa, oso ondo doakigulako.

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia


Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



FITXA TEKNIKOA**- MALMeko kideak:****Alvaro (25 urte). Programatzailea eta sanplerrak****Cesar (29 urte). Baxujolea****Ivan (25 urte). Ahotsa****Luis (28 urte). Kitarra****- Krispiñanan entseiatzen dute, laupabost ordu egunero.****- Datozen kontzertuak:****Uztailean: Madril, Fuenlabrada, Galizia e.a...****Abuztuan: Gasteizko jaietan, 5ean, txosnetan****Irailean: disko berrirako kantak egiteari ekingo diote**

eman genuen, gero Irungo TUNK aretoan, gero Zaragozan, Valladoliden, Madrilen, Bilbon... Askok mugitu gara.

- Eta zer moduzko harrera izan duzue publikoaren aldetik?

Ona izan da, baina agian jendeari arraro egiten zaio bateriarik ez izatea, nahiz eta bateria hotsa entzun. Orain arteko kritikak onak izan dira, aldizkarietako kritikak ere oso onak dira... Egia esan, ez genuen hain harrera onik espero. Klasiko edo tradizionalagoak direnei beharbada zailago egiten zaie halako musika entzutea, teknologia berriak baitarabiltzagu...

MAKETA ETA DISKOA

- Diskoa atera aurretik maketa kale-ratu zenuten, bertako kantak disko-

an sartu zenituzten ala guztiak berriak ziren?

Maketako sei abestiak ondo zeudela pentsatu genuen, eta horiek diskoan sartzeaz gain beste sei kanta berri grabatu genituen. Gainera S.A. taldeko Jinmyk lagundu zigun; bera kanta

"Guk uste dugu denak garela berdinak baina era berean desberdinak, eta inor ez dela bestea baino gehiago dirua iza-teagatik"

horien ekoizpen lanean aritu zen eta horrek kutsu diferentea eman zion diskoari.

- Diskoaren kantak zereng inguruan dira, zer kontatzen dute?

Gaiak denetarikoa dira: emakumeek pairatzen dituzten tratu txarren inguruan, bakoitzak bere kabuz pentsatzearen aldeko beste bat, amodioa eta gorrotoa... Finean eguneroko kontuak dira, Ivanek idazten ditu letrak eta berak ikusi, bizi eta sentitzen dituenak islatzen saiatzen da.

- Non grabatu duzue, zein estudio-tan?

Maketa Arrasaten grabatu genuen, SOR estudioetan, baita diskoa ere. Oso leku aproposa iruditzen zitzaigun eta bertan grabatzea erabaki genuen. Kalitate eta prezio aldetik oso ondo dago.

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

**jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA**

Aiztogile (KUTXI) kalean

**Confecciones
Pinedo
JANTZIAK**

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa.: 945 23 39 90

OLARIZU MENDI



HERRIKO TABERNA

**JOSE URUÑELA
KALEAN**

**GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK**

ALDE ZAHARRA



**"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN**

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

PARRAL
 SAN FRANCISCO KANTOIA 4 GASTEIZ
 TEL. 276833
 Astalderatik...
 Jatorri...
 BERTSULAK...
 PINTXOAK...
 Asteleko...
 Pintxoak...
 01001

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
 bokatak,
 pintxoak,
 kazuelatxoak
Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

IZTABERNA
JATETXEA
BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

PLATÓ
TABERNA
Zaldiaran Plaza, 10 • Tfoa.: 945 22 65 64

Geu aldizkariak gomendatzen du

**ZALDUONDOKO
 KULTUR
 ELKARTEAREN
 ESKUTIK**

**SIMONIDES
 ERAKUSKETA**

UZTAILAREN 30era arte
 LAZARRAGA JAUREGIAN, ZAL-
 DUONDON

MUSIKA

Oihuka-ren eskutik:

**-LABRIT
 PARADISUA**



Diskogintzan bada beste izen
 berri eta gazte bat: Usurbilgo 22

urteko neska bat, Labrit (izen
 artistikoa). Bere ahots emankorra,
 lasaigarria, ederra eta zintzoak
 eta kantuek harrapatu egingo zai-
 tuztete bere sentipen indarrare-
 kin...

Parte hartu duten musikariak:
 Pascal Gaigne (gitarra, moldake-
 tak, ekoizpena); Ritxi Salaberria
 (baxua); Jimmy Arrabit (bateria);
 Erra Oiartzabal (teklak); Karlos
 Zabala (Labriten neba), gitarra
 soloa.

ELKARLANEAN-en eskutik:

**-JOSELU ANAYAK
 IBILI HADI**



Anaia hauen zazpigarren diskoa,
 betiere Joselu Ruiz de Gordoaren
 zuzendaritzapean. Ibili Hadi tal-
 dearen lanik disdiratsu bezain
 pertsonalena duzue.

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...
Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7
Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

**ZURE
 EUSKAL
 DENDAK**

KANGEUROAK

Zerrenda berria osatzen ari gara.
Bertan agertzea nahi izatekotan deitu
945 22 21 53 telefono zenbakira eta
zehaztu zure ordutegia.

EGUN OSOA (gauez ere bai)

Ixone 945 28 15 31

GAUEZ

Leire 649 57 11 29

Miren 945 13 02 57

ASTEBURUAK

Leire 649 57 11 29

Miren 945 13 02 57

Maider 945 26 15 75

Ixone 945 28 15 31

*Emakume-neska euskalduna behar da
2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.
945 27 44 40 (Eduene)

ALOKATZEN DA...

Apartamendua Laredon, hondartza
ondoan. 943 79 52 80 (Karmen)

BACARDI RONARI BOIKOTA



**BACARDI,
TRAGU
TXARRA**

BACARDI Miami mafiaren menpe dago.
Cubaren blokeoaren sustatzailea da.
Helms-Burton Legea idazten laguntza eman zuen,
eta kubako patenteak lapurtzen ditu. Ez da makala...

Cuba Blokeorik gabeko Cubaren alde,
Cuba...libre BACARDI gabe

RON BACARDIren aurkako nazioarteko BOIKOT larria.

LEHIAKETAK-"SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA"

III. UNIBERTSITATE MAILAKO IKERKETA LEHIAKETA

Epea: 00-7-31

Informazioa: Sancho El Sabio Fundazioa. 945 14 78 00

- RIKARDO ARREGI KAZETARI IKERKUNTZA BEKA 2000

Dokumentazioa aurkezteko epea:
Uztailak 1-20



ERAKUSKETAK

- 2000 BIDAIA ERAKUSKETA-IBILI MUNDUAN

San Prudentzio erakuslekua
(San Prudentzio kalea, 30)

Uztailak 28 arte

Antolatzailea: Gasteizko Udala



- VI-EWYORK

Argazki erakusketa (Roberto
Franco) Gaia: Gasteiz-New York
CAFÉ DUBLIN-en, uztailaren 15a
arte

Informazioa: 945 23 10 45

- j.j.s.j. "3edo4 ARTELAN CAMPUSE- AN"

Unibertsitate-
Pabilioian
Urriak 4 arte



GASTEIZKO XXIV. JAZZALDIA. UZTAILAK 16-22

*21:30etan (16an-17an izan ezik)

- 16an: The Monterey Festival Honor Big Band (Umeentzat)-19:30
- 17an: Liz Mc Comb (Gospel)-20:30
- 18an: Béla Fleck & The Flecktones Kepa Junkerarekin / "Lone-Star Shootout"
- 19an: John Lewis / The Manhattan Transfer
- 20an: Gonzalo Rubalcaba Trio / Compay segundo
- 21ean: Roy Haynes Group / David Sanborn-Joe Sample-Richard Bona-Brian Blade
- 22an: McCoy Tyner Trio / Michael Brecker-Pat Metheny Special Quartet

*Jazzaldiaren beste eremuak: Principal Antzokia (18:30), kaleko jazz-a, Jazzza museoan, Amarikea aretoa (uztailak 13, 15-20:30) eta Gauerdiko klubak!!!

INFORMAZIO GEHIAGO: 945-141919



Ez da saridunik egon...
Zaila al zen ba?
Ekaineko erantzuna:
Vida en Catedrales

Uztaila-abuztua-irailean ez
dago musika lehiaketarik...
Udazkenara arte, beraz!

ZINEMA LEHIAKETA

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK ZINEMARAKO 2 SARRERA ZOZKETATZEN
DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Ekaineko erantzuna: ASTORIA-GASTEIZ

Irabazlea: JOSE MARI EZPELETA • ZORIONAK!

EKAINEKO GALDERA:

**ALAVA JENERALAREN KALEAN 2 ZINE ARETO
ZEUDEN DUELA URTE BATZUK. ZEINTZUK?**

Lehiaketa udazkenean berrartuko dugu!

MERKURIO-KADMIKOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNACIONAL
ALCALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Txerokiren abenturak



siempre hay una historia
...en concierto
ROSENDONDO

+ REVERENDO PARKER

UZTAILA^K

28

OSTIRALA

21:30 etan

**MENDIZORROTZA
PABILIOIAN**

Antolatzailea.




Babeslea:

Línea Joven

Caja Vital



Vital Kutxa



Prezioa: 2.500 ptas.

2.000 pta. deskontuarekin

(VITAL KUTXA - EL PERIODICO DE ALAVA ETA ARRIAGA MEGADENDA)

Salmenta Tokiak: Gasteiz.

Arriaga Megadenda. Disco Ritmo eta Discolaser

**GEU aldizkariak KONTZERTURAKO 10
SARRERA OPARITZEN DITU
(DEITZEN DUZUEN LEHEN 10 HARPIDEDUNENTZAT)**

Fundación Sancho el Sabio Fundación



*Udaran ere
hurbil zaitez
GEU aldizkariaren
freskotasunera!!*